

# **KATEAREN BEGIAK**

I. Petxarroman  
Txalaparta

Ikaslea: I. S.  
Aixerrota BHI, 2003-04

# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>IÑAKI PETXARROMAN</b>	<b>2</b>
<b>2</b>	<b>SARRERA</b>	<b>2</b>
<b>3</b>	<b><i>KATEAREN BEGIAK</i></b>	
	I ANTSO AZKARRA: ARRANO BELTZAREN EGAL MOZTUA	<b>3</b>
	II PEDRO MARISKALA: NAFARROAREN AMETS ODOLOSTUA	<b>4</b>
	III ROSE ITURBE: LAPURTARREN SUFRIMENDU ANONIMOA	<b>6</b>
	IV AGOSTI XAHO: ZUMALAKARREGIREN ARRASTOAN	<b>8</b>
	V MANUEL SANTA KRUZ: BIGARREN PORROT HANDIA	<b>9</b>
	VI FORTUNATO AGIRRE: LIZARRAREN HOSTOA BEZALA	<b>11</b>
	VII GLORIA REKARTE: AZKEN BEGIRADA	
<b>4</b>	<b>BALIABIDEAK</b>	<b>14</b>
<b>5</b>	<b>IRITZIA EDO NARRAZIOAREN ASPEKTURIK GARRANTZITSUENAK</b>	
<b>6</b>	<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>16</b>
	<b>AURKIBIDEA</b>	<b>1</b>

# 1 IÑAKI PETXARROMAN

Iñaki Petxarroman Lasarten jaio zen 1973an eta kazetaritzan lizentziatua da. Egunkaria egunkariarentzako lanean ibili zen.

Oraingoan, berriz, bere historiarekiko maitasunak eta egoera pertsonalak medio literatur lanari ekin dio. Mundu berri honetan bere kazetari senak landuta, Euskal Herriak bizi duen egoera ulertzeko bi eleberri plazaratu ditu. Biak herri honen historiaz dihardute. Lehen nobela, "Nafarroa: iragana eta geroa", 2000urtean argitaratu zuen Txalaparta Argitaletxearen eskutik eta bigarrena, berriz, "Katearen Begiak", 2003ko apirilean argitaratu berria du.

## 2 SARRERA

*Katearen Begiak* obra Iñaki Petxarroman kazetariaren bigarren literatur lana da. Euskal Herriak bizi duen egoeraren jatorriari azalpen bat ematekotan sortu du. Eleberri hau zazpi kapitulu edo ataletan banaturik dago, eta 1200 urte aldetik hasita gaur egun arte Euskal Herriak bizi izan dituen guneko historikoak biltzen dizkigu. Gertaeretakoa bakoitzak pertsonaia esanguratsu bat du ardatz, esate baterako: Santa Kruz apaiza Bigarren Karlistadan, Fortunato Agirre Lizarrako Alkate errepublikarra frankismoan, etab. Hauek bizitzen dituzten esperientzien inguruan gertakariak herrian duten ondorioak azaltzen dizkigu pertsonaia eta momentu historikoa gai bihurtuz.

Literatur lan hau aipatu bezala 1200 aldera hasten da kontaketa, Nafar errege zen Antso Azkarraren eskutik. Errege honekin eta geroago bizi izan zen Pedro Mariskal Nafarraren gorabeherekin Nafarroako erreinuaren desagertzea aditzera ematen da.

Geroago, Frantziar Iraultzak Ipar Euskal Herrian dakartzen ondorioak ezagut ditzakegu eta honek sentimendu Karlistari habia ematen dio. Hurrengo mendean batez ere Hego Euskal Herrian toki izango duten bi Gerra Karlisten kausak eta ondorioak aztertzen ditu idazleak, bi pertsonaia desberdinen bidez: alde batetik Agustin Xaho, idazle erromantikoa, eta bestetik Santa Kruz apaiza, bigarren Karlistadan garrantzi handiko gizona.

Azkenik frankismoaz eta demokraziaren lehen urteetatik hona bizitako egoeraz dihardu Iñaki Petxarromanek. Horretarako 2. errepublikako alkate bat eta ETAko militante izandako emakume baten esperientziak biltzen ditu.

Kokapenari dagokionez istorio gehienak Nafarroan kokatzen dira, idazleak herrialde hau beharrezkotzat jotzen baitu Euskal Herriaren historia ezagutu eta ulertu ahal izateko.

Ikusi ahal izan dugun moduan mota guztietako eta gai bihurtutako pertsonaiak topa ditzakegu irakurketan, baina guztiek dute zerbait komunean, gatazka momentuetan denek kanpo erasoei erantzuna eman dieta: idatziz, armak hartuz, beraien idealei eta betebeharrei azken momentura arte uko egin gabe...

Era berean istorio guztiek datu historikoez gain badute idazlearen imajinarioaren isla, batez ere urrunagotik bizi izan diren gertakarien inguruan: esaterako Nafar erreinuaren desagertzea. Imajinarioarekin batera kontakizun bakoitzak barruan maitasun istorio bat dauka, hau bikoteen artean, familian zein ideal eta printzipioekiko bizi da.

Lanaren moldeari dagokionez, berriz, idazleak ez du literatur obra poetikoa aurkezten, baizik eta historikoa. Ondorioz, estilo aldetik obra oso sinplea da eta deskribapenez beteriko idazlanean gertakari historikoei uzten die nagusitasuna. Era berean modu kronologikoan plazaratzen dizkigu zazpi pasarte hauek idazleak historia gugana modu didaktikoan hurbilduz eta ezagutzera konbidatuz.

### **3 KATEAREN BEGIAK**

Lan hau zazpi istorio desberdinez osatzen den aldetik, nahiz eta beraien arteko lotura agerian egon, zuzenagoa edo zehatzagoa litzateke banan-banan lantzea. Jakinik, lanaren gaia Euskal Herriak kanpo erasoen ondorioz bizitako egoera historikoak dela eta honek istorioan zehar hartzen duen forma ezberdina kontuan hartuz banakako istorioen lanketari ekingo diot

#### **I ANTZO AZKARRA: ARRANO BELTZAREN EGAL MOZTUA**

Pasarte honetan Antso Azkar errege nafarraren bizitza tratatzen da, era berean kontakizunak kontatzen digu nolatan galdu zituen Nafarroak Euskal Herri Hegoaldean zituen lurak, eta baita erlijio katolikoak sortu zituen indarrak.

##### **ARGUMENTUA**

Nafar erregea bere gazteluan zelarik errege mairua zen Abu Jakobek laguntza eskatu zion biek etsai zuten Gaztelari aurre egiteko. 1197 urtean erregeak Aragoiren eta Gaztelaren erasoaren ondoren elizaren prestamoa izan zuen, baina gerrari aurre egin ez zezakeenez mairuekin aliantza sortzea erabaki zuen. Mairuen erregea berriz hila zen eta bere semeak Antso bahitu egin zuen herri mairuak bere erregeari sor zion errespetua lortu zuten arte.

Ordurako Nafarroako koroak ia dena galdurik zeukan eta bere adierazgarri zen arrano beltza zatiturik zegoen. Antsok berriz bere aitak emandakoa lortu nahian Ingalaterrarekin aliantza egin zuen, Akitanian zen Gaztela menderatzeko. Geroago berriz komenigarriagoa litzaioke bere herriaren zati handi bat mantentzeko Gaztelarekin aliantza berria sortzea, mairuei aurre egiteko. Honek erlijio Katolikoa indartzen du eta era berean Antsoren heriotzaren ondoren Jimenotar dinastiaren sorrera.

##### **LEKU DENBORAZKO KOKAPENA**

Narrazio honek bi lekutan du eszenatokia, lehenengoa Nafarroako erreinua da, Antso Azkarraren etxea, bigarrena berriz mairuen lurak dira Afrikako iparraldean, Tanger zehazkiago. Denborari dagokionez berriz 1197 inguruan hasi egin ziren errege nafarraren buruko hausteak eta bera hil arte luzatu ziren, tartean hainbat urte pasa ziren.

##### **PERTSONAIAK**

Pertsonaia nagusia Nafar errege den Antso Azkarrak dugu, gizon hau, euskal jatorriduna, adoretua da eta bere herriaren osotasunak arduratzen dio, baita bere aitak herentzian utzitako lana ondo betetzea. Istorioan zehar ikusten dugun moduan ez da indarrezko gizona, estrategia nahiago du eta honek erabakiak hartu baino lehen asko pentsatzera eramaten du.

Era berean pertsona sentikorra da eta bere sentimenduak eta grinak dirua edo boterearen aurretik jartzen ditu. Honen adierazgarri ikus dezakegu mairuen herrian bizi duen egoera eta nolatan tratatzen duen bertako printzesa, zein nolatan pentsatzen duen bere herriaz. Horrelako izaerak aurrera egiten laguntzen du Antso eta adoretz betetzen du. Gauza guztien gaitetik baina errege honek duen dohaina errespetua da, jendea errespetatzen daki eta adibidez Gaztelari Gasteizko giltza entregatu izana bere

herriarekiko duen errespetatuzko jarreraren adierazle da, ezin du onartu bere biztanleen hondamendia lur batzuk mantentzeagatik.

Bestaldetik baditugu ere beste pertsonaia batzuk, Antso erregearen kontseilari eta baita berak zaindari eta gobernari izendatutako: Pedro Ramirez Gasteizko tenientea eta Alonso Fernandez Gandulaingoa. Hauek beti leial mantentzen dira eta bere erregea ezagutzen dutenez gero bere herriaren onuraz jokatzeko dute eta ez beraien interes propioen alde, batez ere jakinda gerra baten aurrean zeudela.

Azkenik eta nahiz eta garrantzi handikoak ez izan Antsoren arreba Berengela eta arrano beltza aipatzea gustatuko litzaidake. Ez da istorioan zehar duten garrantzia dela eta baizik, duten sinbolikotasuna dela. Sinbolikotasunaz hitz egiten dut garai artako adierazle direlako, lehena aliantzena, arrebak irudikatzen duena, eta bigarrena berriz ohorea suposatzen zuen armataria dela eta.

#### TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Nafarroako erreinuaz eta bere errege zen Antsoren eboluzioaz diharduen istorio honetan Antso mairuen herrian dagoeneko sentipenen zati bat gure artera ekartzea interesgarria iruditu zait, honakoa da:

“...gaua zen. Basamortuko gau izartu (...) basamortuko argi morea egunsenti zuria bihurtu zen arte...” (19.or.)

Zati hau hagitz interesgarria iruditu zait, gizon bakar baten irudia dakarkidalako gogora. Gizon hau erbestean dago bere gogoz kontra eta emakume bat etortzen zaio ingurura, emakumea polita da baiona berak ezin du horretan pentsatu, berriz usainak eta oroitzapenek bete egiten dute eta emakumeari merezi duena baino gehiago emateko gai da. Gizona orain zoriontsu dago eta bere herria erakusten dio alboan duen emakumeari, keinuz edo ukituz ez bada ere.

Herria gogoratzeke ere oso forma sinbolikoa eta originala da: pagoen hostoen dardara, itsasoaren orro gazia eta Ebro ibaiaren xuxurlatze gozoa, euskal biztanleak adierazten ditu: izaera gozo eta sendoa, independente eta gerlari edo kementsuak eta alaiak.

Zoragarria da nola sortu daitekeen metafora moduan idatzitako deskribapen batekin hain ezberdin diren bi munduen bateratzea edo paraleloan ikusi ahal izatea, hemen ikusten da zeintzuk diren herrien arteko desberdintasunak baina era berean gizaki guztiak, berdindio nongoak garen, berdinak garela baieztatzen du eta desberdintasunak desberdintasun elkar bizi gaitezkeela errespetuz eta zentzutasunez jokatzeko badakigu. Adibide gisa, istorioan printzesa mairua eta Antso erregea ditugu, beraien munduak, kulturak, betebeharrak ezberdinak dira baina era berean biek badakite bestearengandik zerbait lor dezaketela, bestearen alde zerbaiti uko eginez. Berriz mairuen errege berria norgehiagokaz jokatzeko dabil eta ez du inorengan ezer lortzen, bakarrik bera bezalakoak direnek laguntzen dute eta gainerako guztia indarkeriaz burutzerara behartua ikusten da.

Hau da beraz horrelako pasarte sinple batek iradoki dezakeena eta istorio baten barruan adieraz dezakeena, azken finean horrelakoak gaur Euskal Herriak bizi duen egoerara aplikatu ditzakegu.

## II PEDRO MARISKALA: NAFARROAREN AMETS ODOLUSTUA

Liburuaren bigarren atal honetan Pedro Nafarroako Mariskalaren lan bizitza tratatzen da, honek Nafarroako erreinuan duen eraginarekin eta baita Euskal Herria zen osotasunean, momentu horretan Euskal herria bi potentzien artean aurkitzen da.

## ARGUMENTUA

Fernando II.ak, errege katolikoa, Nafarroako errege zen Joan Labriteri hainbat dokumentu lapurtu zizkion. Haien artea nafar erregeak Frantziako errege zen Luis XII.arekin sinatuko zuen Blois-eko ituna aurkitzen zen. Dokumentu horren arabera aliantza horrek Gaztela menderatzen lagunduko zuen, bi herrialdeei eta beraien egoera oparoa bihurtuko zen. Gaztelak orduan Nafarroako zen Pedro Mariskalari esan zion itun hori sinatzekotan eraso egingo zuela Nafarroa, eta horrela gertatu zen. Gaztelaren erasoaren ondoren Nafarroak lur gehienak galdu zituen eta baita jauntxo ugariaren laguntza.

Egoera berrian nafar Mariskala hainbat aldiz atxilotua izan zen Gaztelako erregeari men ez egiteagatik. Errege katolikoaren osasun makala zela eta Nafarroak eraso egin nahi izan zuen eta horretarako eliza eta Medicis familiaren laguntza behar zuen eta lortu ezean Frantziarekin aliantza egin zuen. Honek berriro porrota ekarri zuen Nafarrentzat. Oraingoan Pedro Bartzelonara eramaten zuten preso eta bertan hil egin zuten laban batez, Nafarroak berriro galdu zuela jakinarazi ondoren.

## LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

Nafarroako erresuma hainbeste mindu zuten gertakari hauek 1512 inguru hasi ziren Blois-eko itunarekin batera eta 1520 inguru amaitu Pedroren hilketaz Bartzelonan. Gertakizun gehienak Nafarroako lurretan gertatzen dira edo haien inguruan, non gerra guztiek Pedroren lana zapuztu egiten dituzte.

## PERTSONAIAK

Istorio honetako protagonista Pedro nafar Mariskala da. Gizon hau Joan Labritekoa bere jauna den esanetara dago eta lehenago beste nafar erregeek galdutako lurak bereganatzen lagunduko dio. Istorioan zehar ikusten den moduan ezagutza handiko gizon langilea da eta bere idealei beti leiala zaio. Aurrekoaren adibide da bere aberri eta jaunarengatik bere bizitza eta bere semearenak emateko gai dela, azken honi ez dio kontrakorik esaten bere pausuak jarraitu nahi dituenan bere bizia arriskatzen duenean.

Istorioan zehar ere nabaria da gizon bakartia dela eta bere lana era indibidualean burutzen duela, nahiz eta hau talde baten erantzukizunean burutu beharra du.

Pedroz gainera bere semea aurkitzen da aitaren ganako debozioa eta mirespena sentitzen duena eta nik uste dut era berean pertsonai honen agerpena badaukala bere arrazoa. Alde batetik aberriaz aparte, bere semea da Pedro bizirik jarraitzen laguntzen duena bere asken espexeratzean. Bestetik, mutiko hau gaztea da eta istoriora garai batean gerta daitekeen berriztatzea adierazten du. Honekin adierazi nahi dudana honakoa da, abertzaletasunaz eta herri baten printzipio zuzenez aparte gazte honek indar eta ideia berriak dakartza eta bera bezalako beste batzuekin bakarrik egin zezakeen aurrera Nafarroak. Gaztelan gertatu zen moduan ideia berriek zulo beltz guztiek baino indar gehiago izan zuten eta berriro ere potentzia eguzkitsuen izatera heldu zen.

## TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Oraingo honetan hautatu dudan testu zati hau Gaztelak Nafarroako lurra bereganatzen dueneko momentuaren deskribapena da. Horrela dio idazleak:

“...gaua zen, udako gau beroa(...) haurrak, etxeetatik kanpo zebiltzan, noraezean...”  
(39.or.)

Deskribapen honetan atentzioa deitu didan lehenengo gauza dagoen kontrajarritasuna da. Lehenik egoera lasai bat aurkezten digu idazleak eta hau irakurri bezain laster imajinatu egiten dugu holako tokia: basoz inguratutako zelai edo landa hori. Bertan edonor egon zitekeen bakardadean, pentsakor haizeak bere gorputza masailatzen duen bitartean.

Bestaldetik kaos osoko egoera bat plazaratzen zaigu, jendea bortxatua da eta ejertzito latz, bihozgabe batek sortarazten dituen minetatik alde egiten dabil.

Norberaren buruan bi egoera hauek aztertu ondoren pentsakor gelditzen gara eta hainbat galdera datorzkigu burura. Hau guri gerta dakiguke? Horrelakorik biziko dugu? Eta Momentu honetan ohartzen gara zer nolako kalteak ekar dakizkigunen gure akzio militarrek, azken finean batak hargatik eta besteak besteagatik mundu honetan gaudenetik borrokan dihardugu. Merezi ahal du honek, guri kalterik egiten ez digun bitartean gerta daitela, baina guri gertatzekotan, jakinda behin baino gehiagotan gertatu zaigula, birritan pentsatuko genuke. Bidezkoa ahal da lur gehiagotatik, edo gaur egun diru eta botere gehiagotatik gure bizitzak hankaz gora jartzea, gura lana ezereztea?

Modu praktikoago batean galderazten digu honek ea gure eguneroko bizitzetan ditugun norgehiagokak edo lehiak zentzua duten, edo kontrara min egitea besterik lortzen dugu. Askatasuna denon eskubide den modu berean denok eman behar dugu askatasuna.

### **III ROSE ITURBE: LAPURTARREN SUFRIMENDU ANONIMOA**

Pasarte honetan Rose gaztearen heriotzak suposatzen duen kolpea tratatzen da. Era berean Frantziar iraultzak Ipar Euskal herrian izandako eraginaz mintzo da, kasu honetan urte gutxiko gazte baten bizitzarekin amaitu duela jakinik, istorioan zehar umeak askatasuna irudikatzen du.

#### **ARGUMENTUA**

1789an Jean Iturbe saratarra aita den aldi berean bere herriko foruak eta herri-biltzarrak baliogabetuak dira frantziar gobernu berriagatik. Frantzian eratu berri den gobernu errepublikarrak estatu laikoa eta zentralista eratu du beste aldateten artean eta honek Ipar Euskal Herriaren antolaketa eta gobernu motaren kontra doa. Horrelako arazoak medio biztanle euskaldunak beraien ohiturekin jarraitu eta frantziar aginduak ez betetzea erabakitzen dute, baina ez zaie hain erreza izango Jakobino erradikalek boterea hartzen dutenean.

Jakobinoen politikarekin gero eta mehatxatuagoak sentitzen dira saratar et Ipar Euskal Herriko biztanle guztiak, beraz espainiar gobernuaren babesa onartzen dute eta hegoaldeko euskaldunen laguntza. Egoera ikusita berriz, Parisko gobernuak saratar eta inguruko herriko biztanle guztiak deportatzea erabakitzen du. Momentu honetan Jeanen alaba gaixorik dago eta Landesetatik etxerako buelta baino lehen hil egiten da elikagai falta dela eta.

#### **LEKU DENBORAZKO KOKAPENA**

Jeanen familian eta ingurukoetan ematen den injustizia egoera hau Ipar Euskal Herrian gertatzen da, zehazkiago kasu honetan Sarako herrixkan. Deportazio momentuan baina saratar guztiak Landesetako herri bateko elizan dituzte bildurik frantziar soldaduek.

Garaiari dagokionez Frantziar iraultza (1789) eta hurrengo lau urteotan gertatu egiten da Rose gaztea hil bitartean.

## PERTSONAIAK

Frantziako iraultzarekin batera gertatzen den istorio honen pertsonaia nagusiak Jean Iturbe eta bere alaba Rose dira. Jean gazte bat da aita moduan estreinatu dena. Baserri giroan bizi da eta era berean bere herriko biltzarretako partaidea da. Gizon langile eta argia da eta gertatutako guztiak gizon bihurtzen ari deneko adinean gertatzen zaizkio. Aita izan ezean beste motatako erabakia hartu edo beste moldez jokatu zuen. Kasu honetan baina badu familia bat eta semeen pisuak erabakiak hartzekotan babestera eramaten dute ezer arriskatu gabe, dena zuhurtzia handiaz egiten du. Heldutzen den aldi berean gero eta erresposabilitate gehiago topatzen ditu eta familia mantendu beharra du lehena. Honela erabaki guztiak esan bezala bere kabuz burutzen ditu bere herria etorkizunean desberdin ikusi nahi ez duen bitartean.

Bestaldetik Rose txikia dugu, berataz ezer gutxi aipa daiteke, neskatila alaia eta jostalaria da eta bere familia zoraturik dauka. Neska honen funtzioa istorioan bestelakoa da baina eta lehen esan bezala askatasunaren adierazle da. Bere aitak egiten dituen ekintza gehiengoetan bera dago bitarteko eta berarentzat etorkizun oparoa nahi du aitak, beraz, herri baten existentzia eta indarrak adierazten ditu, bera eta bere zorientasuna eta ongizatea dira helburu nagusiak.

Badago gero ere pertsonaia bat garai artako gizartearen adierazgarri dena eta emakumez jantzen den apaiza da. Pertsonaia honetan ikusi egiten da erlijioaren pisua, maiorazko legeen ondorioak gizartean, herri ohiturak eta antolaketak eta baita nola ez pertsona hauen, apaizen, bizimodua.

## TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Rose Iturbe pertsonai nagusi eta gai duen istorio honetan bere aitak 1789an bizi duen egoera eta gogoeta bat bildu ditut:

“... eguzkia Larrun mendiaren atzean(...) Horixe zen Jeanen kasua ere...” (68-69.or.).

Pasarte honetan Jeanek biltzarretik etxerako bueltan bizi duen momentua deskribatzen da. Lehenik Frantziar iraultza gertatu baino lehen bizi zen egoera barea ekartzen digu artera deskribapen baten bitartez, paisaia polita eta lasaia. Geroago berriz ikusten dugu Jean pentsakor iraultzaren ondorioak direla eta. Azkenik emazte Maria ikustearekin batera Jean heldutasunera heldu dela konturatzen da eta orain gizon baten legez jokatu behar duela, bai bere familia zainduz eta bere idealak defendatuz.

Nik pasarte hau aukeratu dut azkeneko ideia honengatik, uste dut benetan gogorra izan behar dela jada heldua zarela onartzea. Ni gaztea naiz eta uste dut gazte guztiei berdin gertatzen zaigula, gurasoek heldu eta zentzudun izan behar dugula esaten digutenean eta erresposabilitate gehiago hartzera bultzatzen gaituztenean ezin dugu gure burua heldu moduan irudikatu. Askotan pentsatu izaten dugu etorkizunean, baina ezinezkoa zaigu bete behar izango ditugun guztien zerrenda imajinatzea ere.

Momenturen batean ere bizi izango dugu Jeanen antzeko egoeraren bat eta momentu horretan berak egin duen moduan atzera begiratuko dugu. Atzean ikasten egongo gara edo lagunartean, eta hori amaitu dela esango dugu, orduan ere norbaiti atxikita egongo gara. Baina oraintxe bertan burura datorkigun galdera honakoa da, hain bortitz gertatuko da dena edo izango dugu ere, orain bezala, lasai eta zorientsu bizitzeko betarik? Ez al dago gure gizartea gehiegi atxikita familiara eta honek sortzen dituen betebeharrak?

## IV AGOSTI XAHO: ZUMALAKARREGIREN ARRASTOAN

Agosti Xaho da karlistadetan kokatzen den istorio honen protagonista eta ondorioz gaia. Bera erromantikoa da eta baita euskalduna, beraz bere nortasuna eta baita bizi den egoeraren, Lehen Karlistadak, kausa, bitarteko eta ondorioak dira gaia.

#### ARGUMENTUA

Parisen da Agosti Xaho eta bertan Euskal Herrian bizi den egoeraz ohartzen da, Parisen hain ohiko eta ezinbestekoak diren ideia liberalek Euskal Herriko eskubideak ukatzen ari dira ( foruen abolipena). Bera euskalduna den aldetik zerbait egin behar duela deliberatu eta munduari egoera hau erakusteko mugimendu karlistei buruz liburu bat idaztea erabakitzen du: horretarako karlisten nagusi den Zumalakarregi Jenerala ezagutu nahi izango du.

Helburu honekin Nafarroara etorri eta hainbat lagunengatik bitartez, eta ezkutuan zenbait egun pasa ondoren, etxola batean Zumalakarregirekin elkarrizketa luze bat izango du. Elkarrizketa amaitutakoan karlistek alde egin dezaten eskatu diote eta azkenaldian laguntzaile moduan izandako Patxikuk Frantziaren mugara lagunduko du Xaho.

#### LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

1833an entzun zituen Agosti Xahok Parisen Karlistaden lehen berriak, beraz, bertan hasten da gure kontaketa. Iraun berriz hurrengo bi urtetan edo irauten du.

Paris da gure pertsonaia nagusiaren etxea baina behin Euskal Herrian dagoela, Nafarroa da gertakari guztien eszenatokia.

#### PERTSONAIAK

Lehen esan bezala Agosti Xaho da obrako kapitulu honetan protagonista. Gazte hau erromantiko hutsa da eta askatasuna errespetua eta sentimenduak ditu bere bizitzaren ardatz, hauekin batera eta bere lagun ugari bezala egia maite du. Parisen dagoela, literatura munduan murgilduta bizi da eta sozialista amorratu eta utopiko moduan definitzen da. Literaturarekin mundua aldatuko duela ustetan Arsenalaren izeneko erromantiko bilkuretara hurbildu egiten da eta kazetaritza ere ezagutzeko grina dauka.

Karlistaden berri duenean berriz gauzak aldatu egiten dira eta lege zaharrekiko maitasuna edo beharra sentitzen du bere herriarentzako. Euskalduna izanda ere, amagatik ez bada ere, zerbait egiteko beharrean sentitzen da eta egia bat aurkeztu behar duela erabakitzen du. Egi hau liburu batean azalduko du eta berak mundu guztian ezagut dezatela nahi du.

Momentu honetan gazte hau itsutu egiten da baina era berean bere ikusmenaren beste atal bat lanean jartzen da, eta inolako beste iritzirik jaso nahi gabe karlisten munduari buruz dena ezagutu nahi du, berarentzat benetan zuzena da herri talde honek burutzen duena. Beraren inguruan gertatutako aldaketa guztiak kontuan hartuta argi dago testuan esaten den moduan erromantiko bat dela. Beste bereizgarri batzuk ere baditu, langilea da, gorenaraino igo nahi duen aldetik, eta arrakasta lortzeko edozer egiteko gai da beldur handirik gabe, ez du inoiz atzera egiten, nahiz eta pentsatu. Bakartia ere badela esan beharra dago eta bere inguruan berak eraikitako mundua baino ez du ikusten, Parisen gertatzen zitzaien moduan hau batzutan ez zaio errealitatearekin bat etortzen.

Agosti Xahoz gainera bada ere bere laguntzaile den Patxiku. Mutiko gazte hau herri txiki batean bizi da eta badirudi burua ez duela oso jantzirik, ez du inoiz besteetaz ezer txarrik esaten ezta hauek agintzen diotena ez betetzen. Esan beharra dago ausarta dela eta oso leiala.

Hauetaz gainera badago Zumalakarregi jenerala, herria eta bere ohiturak bere bizitzaren gainetik maite dituen gizona. Honekin batera badaude beste karlista batzuk Agosti laguntzen dutenak (Julian Gaztañaga, Martin Luis...).

## TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Agosti Xaho Zumalakarregirekin topo egiteko nahian zihoala Euskal Herrira sartu baino lehen Baionan pasa behar izan zuen gau bat eta bertan bizitako sentimendu edo momentu batek deitu dit atentzioa niri, honako hau dugu:

“...Nola heldu azaldu zion(...) Dena iruditzen zitzaion interesgarri eta gogoangarri...”  
(103.or.)

Momentu honetan gure protagonista lotarako toki baten bila dabil, eta bidean dabilela nazionalitate edo aberri askotako jendea aurkitu egiten du. Jende hau dena bat eginda dago eta gainera itsasoak eta ibaiak bat egiten duten tokian. Egoera honek Agostiri zirrara sortarazten dio eta mirestuko duen eta beti gogoratuko duen zerbait da. Egoera honek bi gauza edo ideia dakarzkiz gogora.

Lehenik kontutan hartuta Agosti Parisen bizi dela esango nuke batzutan etxean bertan daukagunaz ez garela konturatzen, honek gauza on zein txarretarako balio du eta ez bakarrik txarretarako. Paris betidanik izan da oso hiri garrantzitsua Europa eta mundurako, baina Frantziar Iraultzatik aurrera zerbaitegatik bereiztu bada, bere aberri ugarien izategatik da eta bertan bizi daiteken askatasunaz. Agostik berriz askatasun eta nahaste kontzeptu honetaz Baionan ohartzen da.

Bigarrenez esan beharra daukat gaur egun lehia handiak ditugula gure aberri eta lurraldeak direla eta. Honen ildotik historiak erakutsi digu sarritan normaltasunean eta izate askatasun osoarekin bizi gaitezkeela hainbeste triskantza gabe. Baiona beti izan ba muga herri bat eta bertan denetarik gertatu izan da, negozioak egin dira, paktuak zinatuta dira, jaiak ospatu dira eta beste hainbat gauza eta denaren ginetik gehienetan hiri barruan biztanle eta bisitariak beraien izate nahiaz ez dute kontrakorik izan, gure artean gertatzen den ez bezala.

Honekin amaitzea gustatuko litzaidake esanez batzutan errespetu pixka batekin edozer lortu daitekeela, baina horretarako guztiok gure partetik jarri beharko dugu.

## V MANUEL SANTA KRUZ: BIGARREN PORROT HANDIA

Manuel Santa Kruz da karlistadekin batera istorio honetako gaia. Lanean zehar gizon honen bilakaera eta lana aztertuko dira Euskal Herriarentzako hain garrantzitsua izango den gune honetan, berriro ere Karlistek bigarren aldiz beraienak egin nahi dituzte Euskal lurrak bertan antzinatek agintzen zuten legeak berrezartzeko.

### ARGUMENTUA

Santa Kruz apaiza hainbat fusil ezkutatu ondoren atxilotu egin dute eta berak zenbait baserritarren laguntzaz alde egitea lortzen du. Inguru Nazionalez beterik dagoenez apaiza iparralde aldera jo beharko du bertan karlistekin bat egitera. Egoera berria bizi da bitartean Euskal Herrian eta gazte ugari karlistadetara bildu egiten dira soldaduskara joan nahi ez dutelako. Txarto ateratako saio baten ondoren karlistek armak entregatu behar dituzte Amorebietako itunean eta aldi berean Santa Kruz apaiza berriro atxilotua da, baina berriro ere alde egitea lortzen du.

Hainbat gertaeren ondoren nazionalek apaizaren arreba preso hartzen dute eta honek arreba askatzeko liberal bat bahituko du. Momentu honetan norgehiagoka odoltsua hasiko da bi bandoen artean, eta era berean Karlisten artean denek ez dute atsegingo Santa kruz, baina honek ez du apaiza geldituko. Azkenik eta arrakastarik gabeko hainbat golperen ondoren apaiza Beran aurkituko da bere lanak antolatzen eta inguraturik dagoela konturatzen da. Erbesteratzea besterik ez zaio geratzen eta

konfiantzazko lagun guztiak galdurik dituelarik Ameriketara abiatuko da Jesusen konpainiako kide moduan, Karlos VII.aren eskaintza bati uko eginez.

#### LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

1870eko apirilean hasiko da Santa Kruz apaiza karlistaden aldeko lan garrantzitsuak eginez, Ernio aldean, eta geroago Iparraldean. Sei urte geroago karlistek gerra berriro ere galduko dute eta erbesteratuta dagoen apaiza Amerika aldera alde egingo du Jainkoaren misiolari bezala.

#### PERTSONAIAK

Manuel Santa Cruz da atal honen ardatza eta gertaera guztiek bere presentzia izango dute. Apaiza gizon langile eta kementsua da. Hasieratik berak esaten duen moduan, berak emandako botuari, apaiz moduan Jainkoaren aurrean, leial izango zaio eta ez du tirorik egingo, antolaketa eta laguntza lanetara murriztuko du bere presentzia. Era berean burua oso jantzia duen gizona da, ihes egiteko erabilitako estrategiek agerian usten duten moduan, eta honek aginte handia emango dio. Aginte honek baina bere taldearen barruan triskantzak sortuko ditu eta bere gaitasun bateratzailearen adierazgarri, apaltasunez desberdintasunekin amaitzen saiatuko da. Inoiz etsi egiten ez duen pertsonetako da, lehen esan bezala, eta azkeneraino lanean jarraitu izanak erakusten digu hau.

Kementsua den aldetik badago beregan beste bereizgarri bat, ez zaio galtzea gustatzen eta agerian utzi egiten du alde egin behar duenean, benetan penaturik dago eta etsipenez alde egiten du, badaki baina oraindik oso pertsona maitatua dela herriagatik.

#### TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENEA

Aurrerago esan bezala apaiza gizon kementsua da eta behin baino gehiagotan amaiera ikusi du, izugarria da baina amaiera hori nola bizi duen eta are gehiago besteengan, bere soldaduengan, pentsatzeko denbora duela. Hau da nik hautatutako testu zatia:

“...—Mutilak, badakizue zenbat maite zaituztedan. Eta badakizue (...) ehunka boluntario gazterena alferrik isuria izan ez dadin...” (151.or.).

Gaur egun gero eta pertsona berekoiagoak gara eta gure bizitza egitea gustatzen zaigu. Jende ugariaren iritziaren kontra, uste dut norberak berea egin nahi duelako bihurtzen garela berekoiak eta ez hurkoa lagundu nahi ez dugulako. Era berean uste dut berekoi mota bat baino gehiago dagoela eta testu honek bi ideia hauek biltzen ditu. Beharbada aipatu ez dudana Santa Kruzen bereizgarrietako bat berekoiak dela da, apaizei beti ezartzen diegun berekotasun maila horretan, berak bapo jan ondoren jarraitzen du lanean, baina, aldiz, behin baino gehiagotan erakutsi izan du bere lagunak, familia edo soldaduak inporta zaizkiola eta hemen ikusten dugun moduan ez zaio axola bere dirua soldadu “gaixoak” Ameriketara bidaltzen erabiltzea, honek odol jarria eteten badu.

Aipagarria iruditzen zaidan beste ideia bat honakoa da: gero apaizak berak erakutsiko duen moduan ez dago dena bertan bera uzteko prest, eta bere ekinean jarraituko du Paris aldera erbesteratua izango den arte. Hau badaki ere, ez dago itsuturik bere helburuei begira eta bizi den egoeraz jakitun da momentu oro, beraz gai da bere soldaduei horrelako aholkuak emateko, nahiz eta momentu askotan berari ere onura egin, errazagoa da gerra garaian pertsona bakarra ezkutuan mugitzea talde handi bat baino.

## VI FORTUNATO AGIRRE: LIZARRAREN HOSTOA BEZALA

Fortunato Agirre eta bere izaera zentzudun eta errepublikarra dira gaiak kontakizun honetan, frankismoarekin batera.

### ARGUMENTUA

Agirre jauna Lizarra udaleko alkatea da eta udaletxeko beste funtzionario batzuekin batera eta fraide duen lagun batek eskuratutako informazioarekin inguruko kuarteletan zerbait arraroa gertatzen hari dela susmatzen dute. Ejertzitoko buru nagusiek errepublikaren kontra konspirazioan darabiltza. Gobernu zentralari komunikatzea erabakitzen du baina honek dena kontrolpean dagoela esaten dio. Ezer egin ezean hurrengo egunetan altxamendu militarrek ematen dira eta militarrek Francoren eskutik estatu kolpea ematen dute.

Egoera berria txarra da liberal guztientzako eta hori dela eta Fortunato etxea eta familia utzi eta gurasoen etxearen babesera doa, baina bertan atxilotu egiten dute. Atxilotuta hainbat kartzeletatik pasa eta bere ezagunak, errepublikarrak eta komunista zein anarkistak nola fusilatzen dituzten ikusten du geroago fosa komunetan lurpera ditzaten. Denbora luze ematen du kartzelan eta bitartean emaztearen bisitak jasotzen ditu. Azken hau ziur dago libre geratuko dela pertsona oso garrantzitsua delako eta ezagun frankista batek hil egingo ez dutela esango diolako. Hau baina ez da horrela gertatuko eta Agirre alkatea zazpi tiroz hil egingo dute fusilamenduan “Gora Euskadi askatua” oihukatu ondoren.

### LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

1935 urtearen inguruan hasi egiten da kontakizuna, Francisco Franco militar espainolak emandako estatu kolpeaz. Amaitu berriz hilabete batzuk geroago amaitu egiten da altxamendu militarren ondoriozko agintari berriek Fortunato Agirre fusilatzen dutenean.

Gertakizunak, berriz, Euskal Herrian ematen dira, Lizarra herriaren inguruan, bertakoa baita gure protagonista.

### PERTSONAIAK

Fortunato Agirre Lizarrako alkatea dugu hemen pertsonaia nagusia, bera errepublikarra da eta bere lana gustura burutzen du. Argi dauka bere ideiak herria gehien laguntzen dituztenak direla eta beti saiatu egin da bere funtzioak, bai lanean zein familian hobekien burutzen. Bestela bere ideiei eta ideiei fidela da testuan zehar erakusten duen moduan, hil zorian dagoenean ere bere aberriarekiko duen maitasuna erakutsiko du.

Fortunato familia burua da eta bere semeen heziketaz arduratzen da, ez die ideia faltsuez burua bete nahi, baina gazteak izanda semei ez die berak bizi duen errealtatea erakutsi nahi, horregatik etxetik aldegitia erabakitzen du.

Bere bizitza galtzeari beldur da hasiera batean baina geroago konturatzen da bizitzeko bi modu desberdin daudela; bata besteen menpe bizitzea litzateke, izate askatasuna galduz, besteak, berriz, aske bizitzea ahalbidetzen dio baina egoera honek heriotza zigorrera eramango du. Horregatik hilzorian dagoenean esaten du: “borreroari egin dakioken oparirik txarrena beldur izatea da.”. Berak dagoeneko beldurra galdua dauka eta jakitun da lehenago edo geroago hilko dutenaz.

Bestaldetik badugu Elvira emaztea, emakume hau kementsua da eta hasiera batean etxearen ardura badu, amaieran bere senarraren biziaren ardura ere izango du. Bera emakume moduan ez du bere senarra, bere maitea galdu nahi eta uste du lehen baino

lehenago kalean izango duela. Biztanle moduan, berriz, ohartzen da geratzen zaion guztia bere semeak direla eta momentu batean sentitzen du berak ezin duela bere familian hutsune bat izatea onartu, horregatik gaztetatik duen lagun frankista batengana jotzen du desesperaturik.

#### TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Lizarrako alkatea bere bulegoan dago eta baditu dagoeneko gertatuko denaren susmoak, momentu batean leihotik so egiten du eta bere bizitza guztia datorkio burura:

“... Bulegoko leihotik Ega ibaiaren emanari(...) eskutik helduta, maiteminak elkarturik...” (164.or.).

Zati honek benetan zirrara sortu dit edo gauza asko gogorarazi dizkit. Batzutan ikasten edo lanean denbora luze egon ondoren inguruari erreparatu edo leihotik begiratu eta gure buruetara benetan gauza arraroak etortzen dira. Zenbait aldiz gure burutik hainbat flash back izaten dira eta bi hiru minututan hamabost urtetan gertatu zaiguna gogoratzen dugu. Hau benetan polita da, askotan indar gehiago hartzen lagundu eta lanean ziztu bizian jartzen zaitu, bestetan berriz zertan hari naiz galdearazten dizu eta gelditu egiten zara. Horrelako momentuak egunero izaten ditugu eta ez gara konturatzen baina benetan beharrezkoak izaten ditugu, nik behintzat.

Testu zati honetan horretaz, ideiaz, gainera nola deskribatzen den gustatu zait. Lehenik paisaia batean kokatzen gaitu, berdin da polita zein ezatsegina izan, guri beti gustuko irudituko zaigu. Gero paisaia horretako irudi edo objektuetan gure bizitzako gertakariak islaturik ikusten ditugu. Benetan forma sinple batean azaldu ahal izan du batzutan hitzekin deskribatu ezin dugun sententzio hori.

Horrelako momentuek ere garrantzitsu sentiarazten gaituzte, gu garelako protagonista bakarrak eta honela sentitzen da Fortunato. Lehen esan bezala honek indarra eman eta benetan burua ideiaz bete eta badirudi izarretarako bidean jartzen gaituela. Ikaragarria da sentipen txiki batek sor dezakeena.

#### VII GLORIA REKARTE: AZKEN BEGIRADA

Gloria Rekarte da trantsizio politikoaz, Espainian frankismoaren amaieran bizitakoa, eta ETArekin izatearekin batera azken istorio honen gaia.

#### ARGUMENTUA

Gloria Rekarte gaztea Iruñean bizi da Franco diktadorea hil egiten denean. Momentu honetan eta lehenago injustizia asko burutu dira, azkenetarikoa Txiki eta Otaegiren heriotza, eta jendeak ez dauka batere argi zer gertatuko de estatuan. Euskal Herrian egoera desberdina da independentziaz ere hitz egiten delako. Gazteen artean iritzi ezberdinak daude, baina hainbat partidu politiko legeztatzen doazela ikusita eta konstituzio berriak estatutu bat ahalbidetzen duela ikusita askok uste dute demokraziaren alde egin behar dutela. Poliziak berriz ahal duen guztietan kolpeak banatzen ditu, batez ere mitin eta manifestaldietan eta halako batean ihes egitean Gloria nerabeak ETArekin kide izateko aukera dauka.

Lan berri hau burutzeko ETArekin talde batekin bildu eta informazio emaile lanak egin ditzan eskatzen diote. Berak berriz lan hau oso aspergarria dela deritza eta kide aktiboa izatea eskatzen du. Kontrako iritzi askorekin lortzen du baina urte bateko epean edo atxilotu egiten ditu erriberako herri batean dagoela lanean.

Tratu txar ugari jaso ondoren estatuko hainbat kartzelatik hogeitaz urtez pasa da Gloria eta 2000 urtetik geroztik bere etxean da beti lagundu izan duen familiaz.

## LEKU DENBORAZKO KOKAPENA

1975ean hasten da narratzailea kontaktetan Txiki eta Otaegiren heriotzaz eta narrazioa 2000 urtera arte luzatzen du, urte honetako azaroaren 24an Gloria kartzelatik kaleratua den arte.

Istorio guztia Nafarroan gertatu egiten da eta behin Gloria atxiloturik dagoela eszenatokia Madrilera eta Estatu Espainiarreko hainbat kartzelatara eramaten du idazleak.

## PERTSONAIAK

Gloria dugu kasu honetan protagonista. Hasieran, kontaktaren lehenengo zatian, gazte nerabea da. Gazte honi politikak eta bere herriaren etorkizunak axola handia dio eta gertatzen diren injustziekin solidarizatzen da. Denborak aurrera egin ahala ETA kideekin eta beraien ideiekin identifikatu egiten da, eta ahal duen bezain pronto berak bakarrik ezagutzen duen bizitza berria bizitzen hasten da. Gauzak aldatu egiten dira baina berak agindu guztiak betetzen ditu eta lehenengo bizitza bizitzen saiatzen da, lagunekin atera, tabernan lan egin, familiarekin egon, baina ezin duela konturatzen da. Nire ikuspuntutik beltza eta zuriaren arteko erdi puntu batean aurkitzen du bere burua eta hau jasanezina zaionez pausu bat aurrera egin behar duela erabakitzen du.

Istorioaren amaieran baina nik uste dut Gloriak bere bizitzan heldutasun eta zentzudutasun falta sumatzen duela, eta konturatzen da adibidez bere ama beste gauza asko baino garrantzitsuagoa dela. Hala ere nik esango nuke neska hau denbora asko itsututa bizi izan dela eta ezin izan duela heldutasuna lortu behar izan duen momentuan lortu, gaztaroan.

Badaude beste pertsonaia batzuk ere, bere lagunak: Joselu, Esther, Puy... ikastolako Urralburu irakaslea, ETA kideak eta baita bere familia, baina niretzat bere amaren irudia berezia da.

Gloriak bere ama oso ondo ezagutzen du baina berarekin ez dauka harreman estu samarra hasiera batean. Bere ama berriz emakume jantzia dirudi eta bere alabari askatasun osoz jokatzea usten dio. Behin kartzelaturik dagoela Gloria konturatzen da amak ez diola inoiz ihes egiten utzi, berdin da zer nolako egoeran daukan baina beti ondoan dauka. Honetaz ohartuta Gloriak bere ama erreferente moduan ikusten du eta berak bizitzan duen balore eskala edo bere grinak goitik behera aldatu egiten dira eta bizitza berria behar duela konturatzen da.

## TESTUTIK HARTUTAKO TXATAL ESANGURATSU BATEN AZALPENA

Gloriak behin bere erabakia hartu duela, ETA kide izan nahi duela, lagun batzuekin lau egunez asteburu-pasa joaten da, bertan hainbat burutazio ditu haien artean bere lehena eta geroa:

“... Baina heldu zen. Eta Belagoa inguruko mendi(...) hartan bertan ere, beste hainbesteri egokitu zitzaie bezala...” (205.or.).

Obra osoan zehar hainbestetan egiten duen moduan idazleak lehenik paisaia edo egoera bare baten aurkezpen edo deskribapena egiten digu. Gero hasi egiten da gure protagonistaren ekintzak azaltzen, momentu horretan burutzen dituenak eta azkenik pertsonaia horren pentsamenduetaraino eramaten gaitu.

Zati honek irakurtzerakoan tristura sortarazi dit eta nire burua antzeko egoera batera eramaten du. Bertan atzera eta aurrera begiratu behar izan dut eta benetan gogorra izan da. Horrelako egoerek nik uste dut beldurra sortarazten dutela baina era berean oso modu atsegin eta politean bizi dira, indarrak ematen dituzte eta gauza pozgarri edo

politik bakarrik ikusten usten dizkigute, nahiz eta ondorioetan inoiz gerta dakiguen gauzarik txarrena ikus dezakegu.

Horrelako egoerek uste dut pertsona moduan heldutu egiten gaituztela eta betiko gordetzen ditugula gogoan, batzutan atzera begiratu izan behar izaten dugu eta laguntza handia ematen digute. Asken finean bizitzeko filosofia eta indarrak behar ditugu eta hauek modu askotakoak izan ditzakegu. Sarritan gehien laguntzen dizkigutenak edo behintzat lasaitzen dutenak horrelakoak dira.

## 4 BALIABIDEAK

Hirugarren pertsonako narratzaile orojakile batek narratzen duen istorioa da hau eta beti era kronologikoan egiten du. Narrazioa historikoa den aldetik gehien bat narrazioaz eta deskribapenez baliatzen da idazlea, baina sarritan ere elkarriketa eta pertsonaien pentsamenduak edo bakarrizketa bitxiak barneratzen ditu.

Espresaerari dagokionez euskara jator eta batuan idatzirik dago, baina erabiltzen du ere euskalki desberdinetako hiztegia. Modu honetan hiztegia gehiago aberastu egiten du eta baita momentu oro zein leku geografikoan kokatu behar garen erakusten digu. Esan bezala hiztegia oso aberatsa da bai sinonimo aldetik zein hitz konkretu edo zehatzen aldetik, adibidez: oso adierazteko, hagitz, arras, txit, guztiz, anitz, zeharo erabiltzen ditu eta era berean: preso, gatibu, atxilotu eta erbesteratu edo deportatu kontzeptuak guztiz desberdintzen ditu. Honetaz gainera hiztegia pertsonaiei moldatua da, beraien egoera eta estatus mailari.

Baliabide estilistikoek dagokienez, nobela historikoa den aldetik oso urriak dira eta deskribapen ugariz eta zenbait konparaketa eta metaforaz baliatzen da. Era berean batzutan deskribapenetan enumerazioak edota antitesiak egiten ditu indartzeko. Zenbait metafora eta konparaketen adibideak hemen daude: “... eta eguzkiak ezkutatu ahala, soineko gorria janzten zion zeru mugari, naturaren gutizia ezin hobeagoan...” (68.or.), “...Mariaren oihuek bularra zulatzen zioten...” (73.or.) “... Euskal Herria edozein momentutan sutan jar zitekeen labe beroa zela...” (139.or.) eta konparaketei dagokienez: “...Nafarroako plazak eta jauregiak, domino jokoaren fitxak bezala joan ziren erortzen...” (39.or.), “...Aroa bezain gris ziren etorkizuna eta mariskalaren pentsamendua...” (51.or.), “...Musu gorria, ile horia... aingeru bat ematen zuen, laino artean...” (78.or.), “...Une hartan sorbalda kilo askotako bizkar-zorroa paratu baliote bezala...” (114.or.), “...bidegabekerien aurkako olatuan ur tanta baten gisara...” (196.or.)

Azkeneko baliabide hauekin literatura sortu egiten du egileak narrazio historiko honetaz. Amaitzeko esaldi eredu eta syntaxiaz mintzatuko gara. Oso esaldi motz eta sinpleak erabiltzen ditu, eta ez du egitura oso konplikatu edo ponpoxorik erabiltzen. Espresatzeko era honen bitartez lehen aipatu bezala historiak hartzen du garrantzia istorio hauetan.

## **5 IRITZIA EDO NARRAZIOAREN ASPEKTURIK GARRANTZITSUENAK**

Lehenik esan beharra daukat idazle honen, Iñaki Petxarroman, irakurtzen dudan lehen obra dela eta idazleaz ezer gutxi dakidala. Istorio osoa Euskal Herriaren historiari hertsiko loturik doa giro abertzale baten barruan, pertsonaia guztiak abertzaleak dira. Hasteko, baina, obraren formaz edo antolaketaz mintzatzea gustatuko litzaidake. Lana zazpi kapitulutan banatua izatea eta haietako bakoitza pertsonaia ezberdin bat ardatz izatea oso orijinala eta praktikoa iruditu zait. Honekin irakurketa lasaiagoa egin daiteke, etena nonahi eginenez, eta historia korapilatu beharrean asko sintetizatu eta era dosifikatuan hurbiltzen da.

Bestaldetik pertsonaiak eta gaia ditugu bat eginda, gaiari dagokionez ezer gutxi esan daiteke argi dagoelako Euskal Herriaren historia dela modu orokorrean. Pertsonaiei dagokionez berriz denetarik aurki dezakegu, baina nik uste dut oso ondo aukeratuak daudela nahiz eta esanguratsuagoak aukeratu zitezkeen, beharbada atzealdean baina lanean mantendu diren pertsonaia hauen hautaketa modu sinbolikoan euskaldunen izaera adierazteko erabili da, edota euskaldunok historian zehar izan dugun garrantzia adierazteko. Garrantzitsuak izan gara inperio eta herri askorentzat baina inoiz ez gaitu inork garen moduan ezagutu, baizik beste osotasun batean sarturik.

Zehazkiago baina niri bi pertsonaiek deitu didate atentzioa edo liluratu egin naute, Agosti Xaho idazlea eta Fortunato Agirre Alkatea. Bi pertsonaia hauek herriak bizi izan zuen borroka berea egin zuten, baina normalean egiten den ez bezala, ez zituzten armarik hartu. Ez dakit zergatik baina liburu bat idaztea edota zure idealengandik modu diplomatikoan borrokatzean modu askoz nobleagoak iruditzen zaizkit, beharbada nire izaerarekin bat datozelako.

Era berean esan behar dut istorio guztietan pertsonaia giltza bat dagoela eta pertsonaia nagusiaren gaintik sinbolo moduan dago, adibidez arrano beltza lehenengo kontakizunean edo Gloriaren ama azkenengoan.

Kokapenari dagokionez oso loturik dago Nafarroara baina idazleak dioen bezala hau da gure herriko, Euskal Herriko, historia ulertzeko beharrezko lurraldea.

Espresaeraz edo idazleak idazteko erabili duen estiloaz ere mintzatzea gustatuko litzaidake. Idazleak berak hainbat elkarrizketatan esan duen moduan berak historiari ematen dio garrantzi guztia, eta literatura bakarrik didaktikoagoa egiteko erabili du. Nik uste dut, baina, liburu honek arrakasta handiagoa izango lukeela literarioagoa izango balitz. Niri, pertsonalki, ez zait asko gustatu oso historikoa aurkitu dudalako eta ideia abertzale oso orokorrei loturik. Bakoitzak bere idazteko erak eta irakurtzeko gustuak ditu, baina nik irakurtzeko liburu bat aukeratzen dudanean, humanoagoak gustatzen zaizkit. Nik liburu batean sentimenduak, ideiak eta era berean ezagutzen ez ditudan edo inoiz topatu ez ditudan iritziak bilatzen ditut, berdin da zein den gaia. Kasu honetan ez dut horrelakorik aurkitu eta uste dut gauza asko airean gelditzen direla. Azken finean pertsona bati zerbait gustatzen bazaio identifikaturik dagoelako da eta kasu honetan ni ez naiz batere identifikaturik sentitu. Bizitzan, uste dut nik, aberri baten ideia baten gaintik izate edo izaera pertsonal bat osatuta izan behar dugula, eta liburuko pertsonaiek ez dute horrelakorik, askok uste dute gerra baten irabaziak askatasuna, zorientasuna eta bestelako onurak ekarriko dizkiela, baina era berean ez dakite zer da beraien bizitzan egin nahi dutena edo lortu nahi dutena.

Liburua esan bezala oso kontzeptu orokorrez osatzen da eta oso era globalean idatzia dagoela uste dut, baina ni detaile txikiko pertsona nahiz eta horrelakoak liburu edo istorioa poetikoago eta sakonagoetan lortzen dira. Guzti honen ondorio gisa, uste

dut idazleak oso gai mardula eta zabala aukeratu duela eta ezin izan duela guztiz tratatu edo motz geratu da, sakontasuneraino heldu gabe.

Hasierako ideia bueltatuz, izugarri politak iruditu zaizkit egiten doitu hainbat deskribapen eta baita lexiko aberatsaren erabilera. Ez zait batere zaila iruditu liburuaren irakurketa baina gosez bezala gelditu naiz.

## **6 BIBLIOGRAFIA**

*Katearen Begiak*, Iñaki Petxarroman. Pamiela

*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*, askoren artean. Harluxet Fundazioa

Internet: [www.Gara.net](http://www.Gara.net)

[www.egunero.net](http://www.egunero.net)